

## KORRI, SEBASTIAN, KORRI!

Juan Kruz Igerabide

Irud: Gemma Sales

Erein, 2006

32 orrialde

haurrentzat

### AZUKREA BERE NEURRIAN

“Balioen Txanda” izeneko bilduma argitaratu zuen iaz Erein etxeak Valentziako Bromerarekin batera, eta kaleratutako 11 liburuen artean badira bi euskal idazleek eginak: *Arroza eta tinta*, P. Zubizarretak idatzia, eta *Korri, Sebastian, korri!* hau. G. Lluch irakasleak gazte literatura psikoliteratura dela dio; hau da, gazteei zuzendutako literaturak balio diela adin horretan daudenei beren garapenean. “Balioen Txanda” bilduma hau ez da gazteei zuzendutakoa, baina badu laguntzeko, balioak islatzeko, haurra hezteko asmoa. Eta, hain zuzen, horrelako sailetan ikusten da idazlearen benetako balioa, literaturaren eta pedagogiaren arteko borroka horretan nola erabiltzen dituen bere errekurtsuak idazlan literarioa egiteko argitaletxeak ezarritako parametroen barruan.

Juan Kruz Igerabide, Zubizarreta bezala, trebea da eta ederki asmatu du bilduma honetarako idazlan literarioa egiten. Maistra baten ahotsa jarri dio kontakizunari, eskolan gertatzen den istorio hau kontatzeko hirugarren pertsonaren aukera egokia baita, are gehiago protagonista mutiko ezberdina denean: “Sebastianek arazo bat dauka, eta ezin du besteen martxan ikasi. Hitz egiten, ondo samar moldatzen da, denek ulertzeko moduan. Margotu, bere erara egiten du, gustura. Jolastu, denekin jolasten du, eta ederki pasatzen du.”(5. or.). Baina down sindromea duen Sebastian, eskolan ederki integratuta egonda ere, tristatu egin da gelakide guztiek irakurtzen ikasi duelako eta berak ez. Egoera horretan gelara etorritako neska berri batek, arazo larria izanik aulki gurpildunean ibili behar duen Tatianak, Sebastianen beharra izango du... eta Sebastiani lagunduko dio.

Hitz gutxitan (minimalismotik hurbil dagoen testua dugu hau, *Nire terrazatik* liburu eder haren antzera) eta bi kapitulutan bakarrik, Igerabidek istorio hunkigarria eta bizia kontatzea lortu du. Sebastianen aitak negar egiten badu ere mutikoaren aurrerapena ikustean ez dut uste irakurlearengan horrelako sentimendurik sortaraziko denik Igerabidek idatzi eta Gemma Salesek irudi errealista eta kolore bizikoen bidez ilustraturiko istorioa irakurtzean. Are gehiago, istorio hunkigarria dela esan dugu, baina irakurlearen irribarre konplizea bilatzen da narrazioan zehar; prozesu horretan idazlearen narratibak, estiloak, garrantzi handia duelarik: “Sebastiani aurpegia argitu zaio hori eskatu diodanean. Irribarreak belarriak jan behar dizkiola ematen du, begiak kopetan gora abiatu behar zaizkiola; eskuak, berriz, ezin ditu geldirik eduki. Ez dut inoiz ikusi hain urduri pozagatik.” (19. or.). Gainera, narratzailearen distantziatik irakurleak Sebastianen bizitza jarraitzen du, eta narratzailea bezala bera ere mutikoaren alde jartzen da, Tatianaren inteligentzia eta Sebastianen indarra elkaturik sorturiko egoera animatzen “Korri, Sebastian, korri!” hori norik esaten dion, diogun, oso garbi ez jakin arte.

Izan ere, Manu Lopezek zioen bezala haurrentzat idaztea ideologia politikoki zuzena aldarrikatzea da, eta ipuin honetan –bildumako guztietan bezala- horixe bilatzen da, balioak bultzatzea, adiskidetasuna, laguntza, denok ezberdinak garela onartzea... eta mila kontu gehiago. Baina Manu Lopezek bere saiakera liburuan esan bezala “gauza jakina da gehiegizko azukrea txarra dela umeentzat”; eta ez Igerabideren istorioan, baina agian bai liburuan (ipuina amaitu ondoren badirelako beste bi orri “proposamen

didaktikoa” betetzen dutenak) azukre gehiago botatzen zaio, ongi zegoen testua gozoei bilakatur.

Xabier Etxaniz Erle (2007ko ekainaren 5ean idatzia)